

Hizkuntza-politika eta nazioarteko ikus- entzunezkoak: zer dugun bikoizketaren alde

ITZIAR DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÀ ETA FERMIN ZABALTA ALEMAN
(Nafarroako Gobernuako itzultzaileak)

Nor gara gu, zer gara gu, itzultzaile euskaltzaleak gara gu

Ikus-entzunezko edukiak euskarara itzul-
tzearen garrantziaz idaztea proposatu di-
gute, eta pozik esan dugu baietz. Ez diogu
gaiari akademiatik helduko, horretarako
ahalmenik ez guk: ez gara soziolinguisti-
kan adituak, eta hemen idatziko ditugunak
ez dira ikerlan zorrotz baten ondorioak, bi
itzultzaile euskaltzaleren kezka eta gogoe-
tak baizik; bi itzultzaile euskaltzale besterik
ez gara-eta, urte mordoxka daramatzagu-
nak kezka, ulertu ezinik zergatik ez duten
euskararen aldeko hizkuntza-politikaren
arduradunek plangintza sendorik abiatzen
nazioarteko film eta telesailak euskaratzeko,
joan den mendez geroztik euskaraturiko
edukiak guztion eskura jartzeko eta eduki
horiek guztiak ganoraz sustatzeko. Huts egi-
te horrek arranguraz betetzen gaitu, euska-
raren iraupenerako esparru estrategikoetako

bat delakoan gaudelako, eta, halaber, ziur
dakigulako telebisten eta eskariaren arabe-
rako plataformek gero eta eragin handiagoa
izanen dutela euskararen erabileran eta eus-
kaldunon hizkuntza-gaitasunetan. Areago,
Aingeru Epaltza idazleak maiatzeko zutabe
batean adierazi bezala, guk ere irudipena
dugu «euskararen etorkizuna ikus-entzu-
nezkoen joko-zelaian erabakiko dela hein
handi batean» («Erderen mirabe», *Diario de
noticias*, 2023-05-23).

Hori hala izanik, tamalez, azken 20 ur-
teetan euskaltzale batzuek auzolanean eraiki-
tako biltegia izan dugu poz bakarrenetarikoa
bat, Euskal Encodings, eta beharrik. Hone-
tara ezker, ordea, pantailek gure bizitzetan
hartu duten nagusitasuna ikusirik, gero eta
beharrezkoago iruditzen zaigu nazioarte-
ko ikus-entzunezkoak itzuli eta bikoizteko
politika egoki eta sendo bat abiaraztea; izan
ere, pantailetan euskarazko edukiak normal

kontsumitzeko ohitura hagitx mesedegarria izan liteke euskararen biziberritze-prozesuan gero eta argiago azaleratzen ari zaizkigun aje batzuk sendatzen laguntzeko (edo sendatzen saiatzeko, bederen), hala nola hizkuntza-gaitasunaren trakestea, ahozko eredu informal tradizionalen desagertzea eta estandar informal eraberritua eraikitzeke zailtasunak, euskara batuari buruzko aurreiritzien betiketzea, erabileraren geldotzea, euskarazko kultura-adierazpide aunitzek (izan jatorrizko sorkuntza-lanak, izan itzuliak) duten hartzaile-ekasua, prestigioaren galera eta atxikimenduaren epeletzea.

Itzulpena eta bikoizketa, ordezkapen-arora ez itzultzeko giltzak

Ez gara soziolinguistikan adituak, baina itsuak ere ez gara, eta beste aunitz bezala gu ere ohartuak ginen euskararen indarberritze-aroa moteltzen hasia zela eta, zenbaitek esan bezala, bidegurutze moduko batean gaude-la. Ostrukarena egitea ez da sekula ideia ona izaten; arazoa gutxietea ere ez; horregatik, uste dugu premiazkoa dela alorrez alor aztertzea nora bideratu behar ditugun eginahalak eta indarra. Gure hausnarketa hauek horretan lagundu nahi dute, eta asmo horrez begiratuko diegu hemen pantailetak edukien itzulpen eta bikoizketei, betiere euskararen aldeko hizkuntza-politika helburu.

Aspaldi honetan, aditu eta eragile ugari irantzun diegu aisialdiak egundoko garrantzia duela hizkuntza baten erabilera sustatzeko eta haren ekosistema sendotzeko. Guk ere uste dugu ezen, gure egoera diglosikoan, esparru estrategikoa dela. Bada, esku artean

ditugun datu guztiek diote pantailak eta ikus-entzunezkoek gure aisialdiaren gero eta puska handiagoa hartzen dutela, batez ere haur eta gaztetxoaren artean. Bestetik, datuek diote ezen, gehien ikusten ditugun telebista eta plataformetan, gehienbat atzerriko hizkuntzetan ekoiztutako film eta telesailak ikusten ditugula, eta, hortaz, euskaldunok gaztelaniaz edo frantsesez ikusi ohi ditugula eduki horiek (bikoizturik, gehienetan).

Jakina, ez dugu esan nahi euskal sorkuntza lagundu, sustatu eta hedatu behar ez denik; alderantziz. Bat egiten dugu Lanartea-Euskararen Langile Profesionalen Elkarrekin egiten dituen eskaerekin: «[euskarazko] sorkuntzaren aldeko politika bat behar da», «hil arteko tratamendu paliatiboak behingoz atzean utzi behar dira» (Kultur Sharea, «Lanarteak artisten aldeko politikak erakitzen hasteko oinarritzko bost eskakizun zehatz egin ditu Legebiltzarrean», 2023-04-27). Nolanahi ere, agerikoa da euskaraz sorkuntzako ekoizpena ez dela aski gaurko adin orotako euskaldunak euskarazko mundu batean murgiltzeko, ezta hartzunei gutxieneko hizkuntza- eta kultura-ekosistema batez hornitzeko ere. Ez pantailatan, ez pantailetatik at, jakina; baina, ikus-entzunezkoen dagokienez, gaur egun, inongo hizkuntza-komunitatek ez ditu aski bere hizkuntzan ekoiztutako lanak ikusleentzako pantaila-gosea asetzeko, eta are gutxiago gureak. Sorkuntza zein itzulpena, biak dira osagarri, biak ezinbesteko. Iratxe Goikoetxea ETBko zuzentzaileak «SOS euskarazko bikoizketa» artikuluan orain hamaika urte idatzi bezala (*Berria*, 2012-03-18), «zalantzarikoa da, ordea, euskarazko bikoizketak funtsezko zerregina duela gure unibertsoan bestela heldu

ezi-neko hutsuneak betetzen». Hutsune horiek, bestalde, gero eta handiagoak izanen dira, zeren pantailetakoz hizkuntza-inputak itzulpenen bidez iritsiko baitzaizkigu gero eta gehiago, eta bi aukera ditugu: edukiak jo eta ke euskaratzen eta bikoizten hasi edo, orain arte bezala, eduki horiek gure erdara hegemonikoetan jasotzen segitzea, ahaleginik egin gabe diglosiaren gurrpil zoroa ez geldiarazten, ezta geldotzen ere.

Denok dakigu neoliberalismo linguistikoan tematzea hizkuntza gutxituaren aurkako hizkuntza-politika bat suspertzea dela. Hauxe da egungo egoera: euskararen eta gure bi erdara hegemonikoen arteko asimetria sekulakoa da ezagutzan, erabileran, prestigioan, legeen babesean... Eta euskaldun gehien-gehienok elebidunak gara; Iñaki Iurrebaso soziologoak *Larrun* aldizkarian emaniko datuen arabera, euskaldun elebakarrak % 1 baizik ez dira, eta elebidun gehienak hobeki moldatzen dira erdaraz euskaraz baino (*Larrun*, 283. zk., 2023). Ia guztiak gara elebidunak, erdaraz eroso(ago) moldatzen gara gehientsuenak; hortaz, euskara erabiltzea hautu bat da beti. Garikoitz Goikoetxea euskara-teknikariak artikulu mamitsu bat plazaratu zuen *Jakin* aldizkari-ko 251. zenbakian, «Euskara: ezagutza ez da nahikoa izango», eta hartan hauxe zioen: «Hautu hori elika daiteke edo ito; erraztasunak jarri ala tratatu. Euskararen hautua elikatzea da, gaur eta hemen, hizkuntza politikaren zeregin nagusia». Zoritxarrez, gero aletuko ditugun datuek garbi erakusten dute hautu hori ez dela inolaz ere elikatzen ikus-entzunezkoen alorreko politikan; aitzitik, hautu hori ito eta tratatu egiten dela.

Horren ildotik, eztaba daezina da arduradun politikoez, bai estatukoek eta bai erdidegoetakoek, molde jakin bateko itzulpen-politika ahalbidetzen dutela beti, nahi ala nahi ez, horren jakitun izan ala ez; hortaz, egoera diglosiko batean hizkuntza gutxituaren aldeko itzulpen-politika eraginkorrik ezean, itzulpena ere hizkuntza hegemonikoaren aldeko tresna bihurtzen da. Hego Euskal Herrian, itzulpena izan dugu hizkuntza-politikaren zutabe ezinbesteko bat euskararen legeak onetsi zirenetik; Administrazioan, adibidez, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko erabili da itzulpena, baina, orobat, hiru xede hauetarako: administrazioan euskaraz lan egin behar ez izateko, agintariak euskara sustatzen dutelako plantak egiteko eta erdaldunen pribilegioak iraunarazteko. Nafarroa Garaian, adibidez, foru-administrazioan lanpostu elebidunik sortu behar ez izateko –eta haien beharrak ez dagoela erakusteko– baliatzen da sarri itzultzaileen lana, itzultzaileok betetzen baitugu langile publiko batzuei legezkiekeen lanak; baina, tira, hori mataza bereko beste korapilo bat da... Orain, hauxe besterik ez dugu azpimarratu nahi: hizkuntza-politika neutralik ez dagoen bezala, ez dagoela, ezta ere, itzulpen-politika neutralik. Itzulpen-politikarik ez planifikatzea norabide jakin bateko hizkuntza-politika baten tresna da. Esate baterako, ikus-entzunezkoerik ez itzultzea, ez bikoiztea eta ez azpidatzea itzulpen-politika egitea da eta, beraz, hizkuntza-politika egitea ere bai.

Bestetik, hagitz garrantzitsua iruditzen zaigu kontuan hartzea hizkuntza-politikak eta kultura-politikak bereizezinak direla eta nazioarteko ikus-entzunezkoak

euskaraz ikusteko ohiturak euskarazko kultura-ekosistema sendotuko lukeela eta mesedegarria izanen litzatekeela euskarazko kulturaren transmisiorako. Adibidez, gure irudipena da ezen fikzioa euskaraz ikusten eta entzuten ohituriko euskaldunek, zer irakurri erabakitzean, erosoago eta maizago aukeratuko luketela euskarazko literatura, hala euskaraz sortua, nola itzulia, betiere non hautatua izanez gero. Hizkuntza-ohiturek elkarri eusten baitiote. Hala uste du Juan Luis Zabala idazleak ere, eta hala azaldu zuen «Bikoizketa eta literatura» artikuluan, *Berrian*, 2017ko abenduaren 7an.

Horrez gain, uste dugu esku artean dugun alor honetan ere arduradun politikoak ez direla behar beste erabiltzen ari legeen aterkia itzulpen-politikak hizkuntza-eskubideen alde bideratzeko; gure ustez, joera hori irauli eta egungo legeriak baliatu behar dira indarra eta dirua kalitatezko itzulpenak ekoizteko bai ikus-entzunezkoen alorrean eta bai gainerako esparru estrategikoetan. Egunero, testuetan irakurtzen eta hedabideetan aditzen dugun euskararen hein handi bat itzulpena da. Esate baterako, denok dakigu itzulpena dela gure administrazioetan euskaraz ekoiztutako gehiena; hedabideetan ere, itzulpen-lan etengabea dihardute kazetariak. Horrexegatik, itzulpenen kalitateak berebiziko garrantzia du gurean.

Lehenbiziko gogoeta-sorta honetan orobat adierazi nahi genuke ez zaigula senexkoa iruditzen hizkuntza gutxituen aldeko politika publikoen errentagarritasuna mozkin ekonomikoen arabera neurtzea. Ikus-entzunezkoak itzultzea eta bikoiztea ez dela errenta? Zeri esaten diogu, ordea, errenta?

Hortxe kokka. Espainiako eta Frantziako hizkuntza hegemonikoen aldeko hamaika ekimen ekonomikoki ez-errentagarri bideratzen dira tai gabe (ezen ez nahi gabe), beste larre batzuetako errenten peskizan. Eta, azkenik, uste dugu ez dela onargarria halako batean ETBn emaniko euskarazko film triste baten audientzia txarra baliatzea bikoizketaren bidea baztertzeko, esanez euskaldunok ez ditugula filmak euskaraz ikusi nahi: «Euskaldunoi asko kostatzen zaigu euskaraz zinea ikustea» esan zuen Bingen Zupiriak Euskal Telebistako zuzendaria zenean, *Euskonews* hedabidean, 290. zenbakian, 2005ean. Halaber, *Harry Potter eta sorgin harria* aldi berean eman zituzten ETB1en eta ETB2n, elkarren kontrako lehian, 2005eko urtarrilaren 1ean. Eraitza erraz aurreikus zitekeen, kontuan harturik elebidunak gutxiengoa garelara, elebidunak asko hobeki moldatzen garelara gaztelaniaz, eta elebidunak eta elebakarrak elkarrekin bizi garelara, eta, 2005ean, familiek telebista elkarrekin ikusi ohi zutenean, horrek ekarriko zuela erdarazko katea aukeratzea. Euskaldunok, orain eta hemen, ez badugu fikzioa euskaraz ikusteko irrika handirik, hizkuntza-politikaren arduradunei dagokie aztertzea zergatik den hala, zergatik *kostatzen zaigun* hainbeste, eta garunak estutzea asmatzeko zer bide eta baliabide ditugun *gogo eskas* hori akuilatzeke. Gogoeta eta ohiturak ere eraiki egin baitaitezke, normaltasuna eraikitzen den gisa berean.

Bada, hori hala dela jakinki, zertan ari gara? Zertan ari da, eta zertan ez da ari, adibidez ETB?

Kontuak eta datuak ez zaizkigu ateratzen ongi

ETB1ek 1982an emititu zuen aurrenekoz, eta, Wikipediaren arabera —eta adin bate-tik gorakoek gogoan dugunez—, euskararen normalizazioa zuen helburu nagusi. Hala bada, eta kontuan izanik beste hizkuntzatan ekoitziriko atzerriko film eta telesailek gure inguruko beste telebista-kateetan duten to-kia eta garrantzia: nola —eta zenbat— ari da baliatzen ETB1 itzulpena helburu nagusi horretarako?

2022ko irailaren 6an, Urtzi Urkizu ka-zetariak artikulu bat argitaratu zuen *Berria* egunkarian, eta bertan azaldu zuen ETBk, lau hilabeteko epean, helduendako 130 film eman zituela espainieraz, eta bakar bat ere ez euskaraz. Josu Estarrona legebiltzarki-deak gai horri buruzko datuak eskatu ziz-kion Eusko Legebiltzarrean EITBko zuzen-dari Andoni Aldekoari. Hona hemen haren erantzuna, 2022ko urriaren 6koa:

2021etik 2022ko urrira arte, ETBk 506 film erosi zituen. Horietatik, 458 gaztela-niaz ziren, 28k bertsiio bikoitza zuten (es-painieraz eta euskaraz) eta 20 espainierara bikoiztu zituen. Serieen kasuan, 2021ean, ETBk 25 serie erosi zituen. Horietatik, 10ek espainierazko audioa zuten; beste 6 espainierara bikoiztu zituen ETBk, eta 9, euskarara.

Pentsatzekoa da haurren telesailak izan-nen direla; izan ere, *Bikiak* da azken urtee-tan ETBk euskaraz emititu duen helduen-dako telesail nazioarteko bakarra.

Bestalde, eta betiere Andoni Aldekoaren esanetan, 2021ean ETBk ekoitzitako edo ekoizpenean parte hartutako filmei dago-

kienez, 8 espainieraz ziren, 7 euskaraz, beste bat katalanez, eta beste bat mutua. Azken datu horiekin, egiazta daiteke nabarmena den zerbait: ETBk ematen duen fikzioaren zatirik aise handiena atzerrikoa da, ez pro-dukzio propioa. Horrez gain, produkzio propioa ere ez da nagusiki euskaraz.

Ramon Labaien politikariak *Argia* al-dizkarian esan zuenez (1992ko azaroaren 15ean), «gure intentzioa zen, eta hori gober-nuaren programan zegoen, euskara babestea. Telebista euskarari azken bultzada emateko egin zen... Bikoizketa eskola izan zen lehe-nengo pauso». Baina, gerora, ETBk beste bide bat hartu zuen. 1991n, 1.589 ordu bikoiztu ziren; 1998an, 536 ordu; 2006an, 470 ordu; eta 2013an, 132 ordu... Eta kon-tuan hartu behar da datu horietan gaztela-niarako bikoizketa ere sartzen dela. «ETBko euskarazko bikoizketa, hilda» izeneko arti-kuluan jaso zituen datu horiek Urtzi Ur-kizu kazetariak (*Berria*, 2021eko otsailaren 10ean). Joera horren adibide, hona hemen *Argia* aldizkarian 2020ko martxoaren 15an agertutakoa: «Clint Eastwoodek zuzenduta-ko *Invictus* izan zen Xabier Alkiza bikoiz-leak euskarara bikoiztu zuen irudi errealeko azken filma. 2009koa da». Eta, bikoizleen lan baldintzei dagokienez, artikulu berean esaten da urtetik urtera bikoizleen solda-tek behera egin dutela, «ETBren aginduz omen», zioen Alkaizak, eta «azken sei urte hauetan % 37 batzen dute jaitsierek». «Kan-titatean eta kalitatean» sumatzen omen da galera.

Hasieran film eta telesail guztiak (na-zioartekoak barne, jakina) euskara hutsean ematetik, nazioarteko film guztiak gaztela-niaz ematera igaro da ETB (haurrenak sal-

bu). Galiziako TVGk eta Kataluniako TV3k beren hizkuntzan ematen dituzte guztiak. Valentziako erkidegoko telebista publikoak (hasieran Canal Nou, orain À Punt) eta Balearretakoak (IB3) kontrako ibilbidea egin dute: hasieran, programazio orokorra beren hizkuntzan ematen zuten, eta filmak eta telesailak espainieraz. Gaur egun, film eta telesail guztiak beren hizkuntzan ematen dituzte. Hala, 2023ko maiatzaren 15etik 21era bitartean, adibidez, TVGk nazioarteko 3 film eman zituen bere hizkuntzan, TV3k 4, À Puntek 5, IB3k 4; ETBk bakar bat ere ez euskaraz.

Bestalde, euskarazko audioei ateratzen zaien *etekinaren* afera daukagu. *Merlí* telesaila euskarara bikoiztuta dago, baina Filmin plataforman ezin da euskaraz ikusi. *Unicorn Wars* filmak ere badu euskarazko audioa, baina Movistar Plus plataforman espainieraz eta galizieraz bakarrik eskaintzen da, eta *Irabazi arte!* telesaila, ETBk euskaraz egina, Disney Plusen ikus daiteke, baina espainieraz bakarrik.

Euskarara aspaldi bikoiztutako filmen kasuan, euskarazko audioek moldaketa bat behar dute plataformetara iristeko; TV3 hasia da lanean, eta aspaldiko filmen katalanezko audioak iristen hasiak dira pixkanaka plataformetara. Badirudi ETB, ordea, ez dela hasi oraindik («Audioen aferak luze joko du»: Urtzi Urkizuren artikulua *Berriari*, 2023ko apirilaren 30ean).

Euskarak ez du beste telebista publikorik: Euskal Herria da euskararen lurralde bakarra munduan; gaztelania hamaika estatutan da ofiziala, eta lekua du nazioarteko makina bat erakundetan. ETBk gaztelaniazko ekoizpen, itzulpen, bikoizte eta

azpidatzietan xentimorik xahutuko ez balu ere, ezin konta ahala film eta telesail izanen genituzke ikusgai, pantaila molde guztietan, doakoak zein ordainpekoak, gaur egungoak zein noiznahikoak, gaztelaniaz sortuak zein hamaika hizkuntzatatik bikoiztuak, adin orotarakoak zein haurrendako bereziak, marrazki bizidunak, animekoak, zuri-beltzekoak, fikziozkoak zein dokumentalak, irri egitekoak, denbora pasakoak, klasikoak, thrillerrak, erromantikoak, mamitsuak eta krispetak mau-mau janez ikustekoak.

Pantailak euskaraz, legezko eskubidea

Euskarazko ekoizpena indartzeaz gain, nazioarteko edukiak euskaratzea funtsezkoa da, hasteko, euskaldunon hizkuntza-eskubideak bermatzearen. Hizkuntza-eskubideak zenbait legetan aitortuak dauzkagu: Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunena (Espainiak sinatu eta berretsi du gutuna; Frantziak, sinatu baino ez), EAEko Euskararen Legean eta Euskarari buruzko Foru Legean. Aipatzekoa da Hizkuntza Gutxituen Europako Gutunak zehazki babesten dituela euskarazko (gure kasuan) ikus-entzunezkoak, 11. eta 12. artikuluetan, barnean dela bikoizketa:

Beste hizkuntza batzuetan sortutako lanak eskualdeetako edo eremu urriko hizkuntzetan eskuratze bitartekoak erraztea, eta, horretarako, itzulpen-, bikoizketa-, postsinkronizazio- eta azpititulazio- lanak lagundu eta garatzea (12. artikulua, b) letra).

Espainiako estatuak (Hego Euskal Herriko administrazioak barne) hartutako konpromisoa da.

Bestetik, Europako 2018/1808ko Zuzentarauak dio hizkuntza-aniztasuna zaindu beharra dagoela ikus-entzunezko komunikazioan, eta Espainiako estatuko ikus-entzunezko komunikazioari buruzko 13/2022 Legeak ezartzen du ikus-entzunezkoek autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialen ezagutza eta hedapena sustatuko dutela.

12/2002 Legea dela-eta, Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi du aukera historiko bat galdu dela ikus-entzunezkoetan hizkuntza-berdintasuna egiazki bermatzeko, eta legean ezarritakoak ez betetzeko zirikitu aunitz daudela. Nolanahi ere, legeak betebeharr txiki batzuk ezarri dizkie telebista publikoei, pribatuei eta streaming plataformei: hizkuntza koofizialetako kuotak eta hizkuntza gutxituetako edukietara bideratu beharreko diru-sarreraren portzentaje batzuk; bada, Kontseiluak salatu duenez, erakundeak eta plataformak ez dira legea betetzen ari. Esate baterako, legeak xedatzen du RTVEk haurrendako dituen kateetan eta haien katalogoetan galegora, euskarara eta katalanera bikoiztuta eskainiko dituela edukiak; batez ere 12 urte arteko ikusleendako direnak, eta publiko orokorrari zuzenduriko edukiak erkidegoetako hizkuntza ofizialetara bikoiztu eta azpidatzita eskainiko dituela.

Orobat xedatzen du eskariaren arabera telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen hornitzaileek autonomia-erkidegoetako hizkuntza ofizialetara jada bikoiztuta edo azpidatzita dauden hizkuntzetako bertsioak txertatu beharko dituztela katalogoetan bikoizketa edo azpidazketa hori diru publikoz egin denean, hizkuntza-bercio hori telebista publikoen jabetzakoa

denean, edo bikoizketa edo azpidazketa horrek erakunde eskudunak ziurtaturiko kalitate maila duenean.

Bestalde, streaming plataformak *bide-agarritasun teknikoaren* aitzakiari heltzen ari dira bikoiztutako bertsiorik ez eskaintzeko. Euskal Herriaren kasuan, aurreko guztia betetzea eta gainbegiratzea ikus-entzunezkoetan eskumenak dituzten euskal erakundeei dagokie, bai eta moldaketa tekniko horiek erraztea ere.

Beraz, legeek, aski ez izan arren, aukera ederra ematen digute nazioarteko edukiak euskaratu daitezela eskatzeko. Gure ustez, ez genuke oraingo abagunea alferrik joaten utzi behar.

Nazioarteko edukiak euskaraz pantailetan, hizkuntza indartu dadin herriko plazetan

Hasieran aipatu dugu uste osoa dugula nazioarteko edukien kalitatezko bikoizketen aldeko politika burutsuak hagitx mesedegarriak izanen lirakeela euskararen normalizazioan, egun begi-bistakoak diren aje batzuk sendabidean jartzeko. Gure aburuz, hauek dira euskarazko bikoizketen ugaritzea eta normaltzeak ekarriko lituzkeen onurak:

Batetik, nabaria da hizkuntza-gaitasunak eskasten ari zaizkigula. Azken urteotan, gora egin dugu ezagutzan, baina datuek –eta gure belarriek– diote ezagutza herren bat ari dela hedatzen. Elebidunak gara. Euskaldun gehienak etxe erdaldunetan bizi gara eta hobeki moldatzen gara erdaraz; D erdua, inguru euskaldunetan izan ezik, sarri ez da aski ikasleei euskararen ezagutza duin eta noranahiko bat emateko. Iurrebasok

Larrunen emaniko datuen arabera, euskara lehen hizkuntza duten hiztunen erdiak baino gehiago ez dira jada euskaraz errazago moldatzen.

Horiek horrela, ez da harritzekoa euskaldun aunitzen irudipena izatea hiztun asko etorri onez eta adierazkortasun egokiz ezin mintzatuz dabiltzala, eta erdarazko hitz eta esamoldeetara jo behar dutela etengabe. «Hemendikan urte batzuetara, danok erdaraz arituko gara euskaraz ari garelakoan» esan zuen Lazkao Txikik. Asmatu zuelakoan gaude asko. Aitor Arana idazle eta itzultzaileak, esaterako, hau idatzi zuen «ETB maitete... zintudan» artikuluan, *Berrian*, 2023ko martxoaren 16an: «Askoz errazagoa da euskara kaskarra entzutea, euskara ona baino». Eta artikulua berean dio «inoiz baino beharrezkoagoa zaigula hizkuntza duina bizirik eskainiko digun telebista izatea». Ados gaude Aranarekin, eta, gure ustez, kalitatezko itzulpen eta bikoizketen bidez hizkuntza-eredu duin eta egokiak zabaldu genitzake, euskararen aberastasun lexikoa, aldaera eta doinuera askotarikoak erabiliz, euskara batu molde askotarikoak landuz.

Adituek diote euskaraz hobeki moldatuko diren elebidun gehiago behar ditugula, hots, oraingo elebitasun asimetrikoa alderantzikatu behar dugula, etxean umeei euskaraz mintzatuko zaizkien elebidunen ehunekoak handituko badira. Kalitatezko bikoizketen bitartez, hiztunen ahozko euskara aberasten lagundu dezakegu, eta hitzen zein esamoldeen esan-indarra zabaldu. Esaterako: apirilaren 26an, txiolarari batek kontatu zuen ezin ziola alabari eskolako lanetan lagundu, berak ere ez zuelako testu bat ulertzen: «Kolezistitisa: behazuneko harri batek

hodi zistitiko buxatzean, behazun xixkua hanpatzen da». Juan Luis Zabala idazleak erantzun zion: «ETBiek *Houseren* episodio guztiak eman balitu euskaraz bikoiztuta, ez zuen inolako arazorik izango dena lehenengoan ulertzeko». Baina bikoizketak, jakina, ez lirateke soilik haur eta gaztetxoei bideratu behar, ikusi baitugu helduok ere behar dugula belarrietarako bazka ona barra-barra inguratzen gaituen euskara eskustuari aurre egiteko. Gure euskara da haurrendako eredu, eta gure ohiturak ere bai. Nazioarteko edukiak euskaraz ikusteko ohitura bagenu, gure euskara zorroztu eta aberasteaz gain, txikiendako eredu ere izanen ginatke. Dagoeneko badakigu etxeko transmisioak ez duela egun bermatzen euskaraz hobeki moldatzen diren hiztunak izatea epe luzean. Inguruak erdalduntzen gaitu. Etxea ez da aski, are gutxiago etxeko pantailak erdaraz mintzo bazaizkigu.

Bestetik, edukiak bitara izanen bagenitu (bikoiztuak eta azpidatziak), ikus-entzuleek aukera izanen lukete input bikoitza jasotzeko aldi berean. Ikuspegi soziolinguistiko batetik, arras interesgarria deritzogu aukera horri, hiztunak hizkuntzaren bi gaitasun landu eta garatzen ariko bailirateke: entzumena eta irakurmena. Esan beharrik ez dago euskaldun hartzaileendako eta euskara ikasten ari direnendako ere oso aukera baliagarria izan litekeela. Ez al ditugu, bada, ingelesezko film eta telesailak jatorrizko hizkuntzan ikusten gure ingelesa hobetzeko?

Ahozko eredu tradizional informal txukunak galtzen ari dira, eta zailtasunak ditugu estandar informal bat eraikitzeko. Soziolinguistikan adituak ahozkotasunaren garrantziaz ohartarazten ari zaizkigu aspaldian.

Kike Amonarrizi irakurri genion zeinen garrantzitsua den hiztun aktiboak sortzea (*Berria*, 2023ko martxoaren 23a), eta ahoz-kotasuna lantzea da horretarako gakoetako bat. Erregistro informaletarako balio digun estandarra landu eta hedatzea premiazkoa da, zeren adierazkortasunik gabeko hizkuntza lau bat nekez izaten ahal baitzaio erakargarri esamolde indartsuz jositako hizkuntza hegemoniko batean ere ederki moldatzen den hiztunari. Gaur egun, inoiz baino ageriagoa da gizartean –batez ere haur eta gazteen artean– hedatzen diren esamolde, makulu-hitz, esaera barregarri, modako hitz eta beste baliabide jostagarri ugari pantailen bidez hedatzen direla, bai gaztelaniaz eta bai frantsesez. Ingelesetik itzulitakoak dira maiz. Ezin diogu euskarari ukatu hizkuntza eraberritu, malgutu eta hedatzeko bide hori. Horregatik, bat gatoz Pantailak Euskaraz ekimenekoekin, esaten baitute bikoizketa zutabe ezinbestekoa dela «hizkuntza estandar informala eraiki, berrasmatu eta herritarren artean zabaltzeko». Euskaraz sorturiko nahiz euskarara bikoizturiko fikzioa, biak behar ditugu ahozko euskara erakargarri, gozagarri, duin eta sinesgarri bat lantzeko eta hiztunen artean errotzeko.

Euskara batuari buruzko aurreiritziek setaz irauten dute gurean, mozorroa aldatzen badute ere. Euskaldun batzuei oraindik ere zurruna eta artifiziala iruditzen zaie batua, buruan iltzatua dute-eta gurea adierazkortasunerako ahalmenik gabeko estandar her-tsi kolorebakarra dela. Aurreiritzi horien funtsik eza frogatzeko, batua egiazki zer den erakustea da biderik hobereana, ea hala uste dutenak honetaz jabetzen diren: «Aurreiritziak aurreiritzi, euskalki guztietako

hitz, esamolde eta joskera guztiak estandar-raren parte dira, batuak ortografiaren eta aditz-paradigmen bitartez markaturiko jokalekuaren barrenean», Irene Arrarats itzultzaile, zuzentzaile eta euskaltzain urgazleak *Berrian* «Mailu bat iltzera» artikuluan ederki idatzi bezala (2018-09-15).

Gure irudikoz, ikus-entzunezkoak hagitz lagungarriak izaten ahal zaizkigu aurreiritzi horiek borrokatzeko, behingoz sinesteko batu jori, zabal, malgu, noranahiko, ahaltzu eta kolore anitzeko bat daukagula eta egiazko estandar nazional bat garatzen segitzeko. Beste hizkuntzen kasuetan ere hedabideen eta ikus-entzunezkoen bidez zabaldu dira, hein handi batean, aldaera estandarrak, bai formala eta bai informala (azken urteotan Interneten bidez ere bai, noski). Hedabideak eta pantailak iskilu linguistikoak eta hizkuntza-eskolak dira. Haien bidez eraberritu, egokitu eta gizarteratzen dira aldaera estandarrak. Batua da gure hizkuntzaren geroa bermatzen ahal digun aldaera bakarra, eta haren ajeetako bat da erresonantzia-kutxa indartsu bat duela ments, Irene Arraratssek eta Bernardo Atxagak esan izan duten gisan. Euskalkiak ere zaindu behar dira, beren tokia eta prestigioa eman behar zaie, nola ez, baina estandar nazional zabal eta koloretsu bat gabe jai dugu, eta bikoizketak asko lagundu dezake horretan. Bikoizketak ez du-eta zertan kolorebakarra izan. Euskalkien adierazkortasun-ahala lantzeko baliagenez pantailak, euskalkiak ere landu baitaitezke; ahal handiagoa lukete jatorke-ria zozo, erdarakada gordin eta fonetismo antzuen nahas-mahas hutsa ez balira. Horregatik uste dugu bikoizketen bidez ez genukeela jokatu behar Espainiako estatuan

bezala, non gaztelania uniforme bat zabal-
tzeko baliatu baita, eskualdeetako aldaeren
kalte (eta, orobat, hizkuntza gutxituen kalte,
jakina; euskaldunon gaztelaniazko inputak
ugaltzeko eta haietara are gehiago ohitzeko
balio izan dute telebista espainolek, besteak
beste). Espainiako kate publikoek ez ikusia
egin diote euskarari; telebista espainolek
normaldu dute espainiera dela hamaika
erregistroko hizkuntza estandar sendo eta
baliagarri bakarra gurean, zeinaren aldean
gizartean tamalez normalizatu ez den eus-
kara batua zurrun eta motz begitantzen bai-
tzaie batzuei. Frantzian ere, igualtsu.

Euskara batuaren ordezkoi bakarrak
gaztelania eta frantses batuak dira. Honatx
adibide argigarri bat: UEMA Udalerri Eus-
kaldunen Mankomunitateak gazteen ikus-
entzunezkoen kontsumoari buruz egin duen
ikerketak azaleratu du ezen herri horietako
Lehen Hezkuntzako ikasleek askoz gehiago
ikusten dutela erdarazko marrazki bizidu-
nen Clan katea, haurrendako euskarazko
ETB3 katea baino. Eta inkesta berean ikusi
da 9 urtetik 17ra arteko gazteek gehienbat
Netflix ikusten dutela. Erdara batuan.

Gainera, gure itzulpen gehienek
sorburu-hizkuntza gaztelania da Hegoal-
dean, eta frantsesa Iparraldean. Nazioarte-
ko telesail eta filmen itzulpenen bitartez,
ordea, sorburu-hizkuntza gehiagorekin lan
egin behar genuke itzultzaileok, eta seguru
gaude sorburu-hizkuntzen aniztea onuraga-
rria izanen litzatekeela euskara estandarren
baliabideak aberasteko eta gure aldaera es-
tandar formal eta informalak hornitzeko.

Bestalde, lehenago esan bezala, fikzio-
lanak euskarara bikoizturik ikusteko ohitu-
rak euskal kultura ekosistema osoari egingen

lioke mesede. Hizkuntza-ohiturek elkar
elikatzen dutelakoan gaude: nazioarteko
fikzioa euskaraz kontsumitzera ohituriko
ikusleak errazago joanen dira euskarazko
antzerkia ikustera eta errazago hautatuko
dute euskarazko literatura irakurtzea, he-
mengoia zein nazioartekoa. Besteak beste,
erosoago sentituko direlako eta euskarazko
kultura-ekoizpenak gozagarriagoak iruditu-
ko zaizkielako. Ohiturak aldapak zelaitzen
ditu-eta, hizkuntzarenak ere bai. Literatura-
ri dagokionez, azken urteotan maiz entzuten
da zeinen baliotsua izaten ari den literatura-
itzulpena euskarazko kultura-ekosistemari
egiten ari zaion ekarpena eta tamala dela na-
zioarteko obren itzulpen bikain askok duten
zailtasuna irakurleen beroa lortzeko. Bada,
arestian esan bezala, bat gatoz Juan Luis
Zabalak 2017an *Berrian* idatzitakoarekin:
«Konbentzitura nago kanpoko pelikulak eta
telesailak euskaraz bikoiztuta ikusten ohitu-
ko bagina, euskaraz bikoiztutako fikziozko
ikus-entzunezkoen eskaintza erdarazkoen
parera iritsi edo gutxienez gerturatuko bal-
litz, irakurle askok aiseago egingo luketela
euskarazko liburuen aldeko hautua, eta neu-
rri handian leunduko litzatekeela gaur egun
euskarara itzulitako liburuek irakurle askori
sortzen dieten ikara». Ikus-entzunezkoen
alorrean irabazitakoa beste kultura-alorretan
ere igarriko litzateke, kultura-ekosistema
osoaren mesede.

Egungo beste ajeetako bat euskararen
prestigio eza dugu. Eta errua ez daukagu
ez guk, ezta euskarak ere, mendeetako az-
pirakuntzaren errotarriak baizik. Halere,
hizkuntza-politikaren arduradunei dagokie
euskararen eta gure estandarren prestigioa
goititzen ahalegintzea, eta, gure aburuz,

begi-bistakoa da nazioarteko film eta telesail prestigiotsuak euskaraz ikusteak berez egiten diola on euskararen estatusari. Garrantzi sinboliko handikoa da, bikoizketen bidez erakusten ari garelako euskarak ahalmena duela gaur egungo mundua ekartzeko euskaldunei, euskara ez dela bakarrik gorde beharreko ondare bat iraganetik datorkiguna, gehienez ere «hemengoaz» eta «geureaz» aritzeko balio duena. Aktore eta pertsonaia ospetsuak gure hizkuntzan mintzatzen aditza ona da euskararen prestigiorako eta euskaldunen autoestimurako. Gure hizkuntzari ematen diogun balioak sendotu egiten du hari diogun atxikimendua. Ziur gaude bikoizketak horretan lagundu dezakeela, betiere betiko festa-zapuztaileek bikoizketari bere bidea egiten uzten badiote eta ez badira tematzen ez dela sinesgarria auskalo zer pertsonaia euskaraz aditza; izan ere, holako kaparkeria zale aunitz ere egon da inguruotan, zeinei guztiz naturala iruditzen baitzaie, noski, estralurtarrak eta Olinpoko jainko-jainkosak espainol batuan solastatzen entzutea.

Azken inkesta soziolinguistikoetan ikusi da gazteen artean jaisten ari dela euskara sustatzearen aldeko jarrera. Motibazioaren eta atxikimenduaren nolakotasunetan, faktore ugari uztartzen dira: etxeko transmisioa, norberaren bizipenak, hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza baten prestigioa. Hizkuntza baten aldeko jarreretan, faktore pragmatikoak eta faktore afektiboak nahasten dira, eta euskararen biziberritzearen aldeko politikek denetan eragiten saiatu behar dute. Hala, bada, berriz diogu: haur eta gazteek miresten dituzten aktore eta pertsonaiak pantailatan euskaraz aditzaek hizkuntzare-

kiko atxikimendua indartuko lukeelakoan gaude. Miresten dituztenak gaztelaniaz edo frantsesez entzuteak hizkuntza horiekiko lilura indartzen dien hein berean. Hemengo erreferenteak ere oso garrantzitsuak dira. *Golazenek* eta *Irabazi arte!* telesailen arrakastek erakutsi dute euskaraz eduki txukun eta gustagarriak ekoizten direnean ikusleek gogotsu ikusten dituztela. Euskarazko ekoizpenak eta sorkuntza-lanak ezinbestekoak ditugu gure kontakizuna eratzeko, gure iruditeria landu eta eguneratzeko, geure erreferenteak izateko, baina gure kontakizunaren parte ere behar du izan hizkuntza ahalguztidun eta noranahiko bat dugula, hori ere kontatu behar diogu geure buruari, eta horretarako ere behar dugu nazioarteko modako telesailak eta film sarituak euskaraz iristea gure etxeko egongeletara. Ez gara mozoloak: badakigu bikoizketak ez duela xirmi-xarmaz miraririk ekarriko; norabidea irauliko bada, beste alor askori heldu beharko zaie, hizkuntza-ekosistema osoa begipean harturik.

Kalitatea gako

Bikoizketak euskararen aldeko hizkuntza-politikarako duen garrantziaz mintzatu gara orain arte, eta gure lanbideari berariaz dagozkion zenbait gai aipatu nahi ditugu orain, agerikoa da-eta bikoizketaren aldeko politikak, sosez gain, baldintza duinetan arituko diren profesional finak behar dituela. Euskal itzulpengintzak alor askotan erakutsi du trebezia eta ahala. Orain, pantailak barra-barra euskaratzeko erronkari helduz gero, beste alorretan bezain txukun arituko diren profesional andana bat beharko da. Bi-

koizketaren aldeko politika batek itzulpen-beharrak eta lan-eskaintzak handituko lituzke, eta, arrakastaz sustatuz gero, orobat eraginen luke beste kultura-alorretako itzulpenen arrakasta areagotzea. Bikoizketa korporatibismo hutsez ere aldeztu beharko genuke... Pantailen edukiak euskaratzeko politikak, nola ez, kontuan hartu behar du alorrean arituko diren profesionalendako prestakuntza egokia, eta, gure irudikoz, prestakuntza-plangintza horretan zer egin handia lukete euskal unibertsitateek eta EIZIEk. Kalitatea funtsezkoa izanen da, eta kalitateak baliabideak behar ditu (diruzkoak eta bestelakoak). Eta lan baldintza duinak arloko profesionalendako: itzultzaile, egokitzatzaile eta bikoizleendako. Profesional onak baditugula badakigu: haiei esker, marrazki bizidun gogoangarriak heldu izan zaizkigu pantailetara, eta kalitatezko fikzioa eta entretenimenduzkoa ere bai; ez nahi bezainbeste, ordea.

Kalitatea funtsezko da, halaber, ikusleek beti izanen dituztelako eskura erdarazko bertsioak; horrenbestez, itzulpena eta bikoizketa egokiak eta gustagarriak izan ezean, haietara joko dute (administrazio-testuak direla-eta, ber gauza gertatzen da, eta horrexegatik jo behar dugu bikaintasunera beti: herritarrek eskura duten erdarazkora jo behar ez izateko eta hurrengo batean ere euskarazkoa lehenets dezaten). Itzulpen eskasek min handiago egiten diote euskarari hizkuntza hegemonikoei baino. Hasteko eta bat, hizkuntza horietan ekoizpen osoaren ehuneko txikiagoa hartzen dutelako itzulpenek, eta, beraz, itzulpen traketsak ez dietelako hizkuntza horiei euskarari bezainbesteko kalterik egiten. Bigarrenik, bikoizketa edo

azpidatzi kaskarrik suertatuz gero, gaztelaniadun edo frantsesdun elebkarrek ez dutelako inoiz agintea sakatuko beste bertsio hobe bat hautatzeko. Baliteke kexatzea eta horren kontura buila pixka bat egitea sare sozialetan, baliteke itzulpenaren arduradunen lana txarrestea, baina ez dituzte inolaz ere zalantzan jarriko beren hizkuntzen dohainak eta prestigioa.

Eta azpidatziak?

Dudarik ez dago: azpidatzea bikoiztea baino merkeagoa da, eta prozesua azkarragoa da. Azpidatziak arras baliagarriak dira ahalik eta gehiena egon dadin euskaraz, eta horren aldekoak gara gu, jakina. Halere, euskararen aldeko hizkuntza-politikari begira, ez dago alderatzerik batak eta besteak hizkuntzari ematen dioten *turnua*. Bikoizketak aunitzez indar eta zabalera handiagoa ematen dio hizkuntzari. Horregatik, harriduraz entzuten ari gara ETBk sortuko duen Primeran plataforman azpidatziaren alde egiten dela. Erabaki horren zurigarri, gazteek azpidatziak nahiago dituztela esan dute. Hala esan zuen ETBko zuzendari Unai Iparragirrek, lehen aipatutako «Zer ekarriko liguke euskarazko streaming plataforma batek?» izeneko jardunaldietan. Guk, ordea, ez dugu hobespen hori sumatzen inguruko gazteengan. Egia da gero eta gazte –eta oro har jende– gehiagok erabakitzen duela jatorriz ingelesez diren edukiak ingelesez ikustea, hizkuntza ikaste-ko eta entzumena –eta norberaren estatusa– lantzeko. Nolanahi ere, susmoa dugu hala egiten dutenak ez ote diren uste baino gutxiago eta, batik bat, ez ote diren profil jakin bateko ikusleak. Gure irudipena da ezen, zi-

nemazale batzuk eta publiko *jantzi* bat izan ezik, hots, gutxiengo bat izan ezik, Euskal Herrian jende gehienak eduki bikoiztuak nahiago dituela, besteak beste Frantziako eta Espainiako estatuetan bikoizketa delako lege, eta euskaldunak ere horretara ohituak gaudelako. Ikusi besterik ez dago zinema-aretoetan jendeak zer nahiago duen.

Badakigu bikoizketen bidez aktoreen ahotsak eta doinuerak galtzen direla eta, horrez gain, azpidatziak mesedegarriak direla atzerriko hizkuntzak ikasteko, edo haiek entzutera ohitzeko, bederen. Nolanahi ere, gure hemengo arrazoibideetan xede bakarra izaten ari gara buruan: zerk egiten dion mesederik handiena euskararen biziberritzeari.

Beste alde batetik, bikoizketa gora ari da azpidatziak arras hedatuak egon diren herrialde batzuetan ere, hala nola Estatu Batuetan, non bikoizketa zabaltzen ari baita jatorriz ingelesez ekoizti ez diren edukiekiko interesa handitu ahala. Islandian, bestalde, badirudi Gobernuak islandieraren aldeko neurriak hartzen hasia dela, kezka piztu baita haur eta gazteen hizkuntza-ohiturak direla-eta, beren bizitzaren parte handi bat ingeles hutsezko mundu digital batean ematen dutelako. Quebecen, bikoizketa da arau, badakitelako ingelesaren erauntsitik babesteko aterki paregabea dela. Europako beste herrialde batzuetan ere zabaltzen ari da kezka hori, eta batzuek azpidazteko ohitura jarri dute jomugan. Herrialde horietan, hizkuntza-komunitate sendoak dituzte, diglosiak jan gabeak, gurean ez bezala. Ez dezagun geure burua engaina: azpidatziak ere sustatu behar ditugu, baina B plana izan behar dutela iruditzen zaigu, eta egiaz ezin bikoiztu diren edukiak euskaratzeko baliatu

behar ditugula. Nazioarteko ikus-entzunezko arrakastatsuak jende gehienak erosoan ikusten dituen moduan eskaini behar dira, hots, bikoizturik. Bikoizketak hautua errazten du. Hemen eta nonahi. *La Casa de Papel*ek alimaleko arrakasta izan zuen Estatu Batuetan: egiaz uste dugu lortu izanen zuela halako arrakasta bikoiztu izan ez balitz? Ezezkoan gaude.

Dena den, gai honetan, erabat ados gaude Iker Bengoetxea Goya bikoizleak *Argian* esandakoarekin: «(...) onena litzateke botoi bat sakatuta ikusleak aukeratu ahal izatea nola ikusi nahi duen gauza bakoitza».

Esperantzara kondenatuak

Oraingo abagunean, ikusten ditugu esperantzarako helduleku interesgarri batzuk, eta haiek aipatu behar ezinbestean, kexati eta negarrontzi hutsak ere ez gara-eta. Lehenik, ikus-entzule asko gai da euskara ulertzeko (plataforma-ikusleen % 70 euskara ulertzeko gai da EAEn, Pantailak Euskarazkoek emaniko datuen arabera). Bigarrenik, Espainiako estatuko ikus-entzunezko komunikazioari buruzko 13/2022 Legeak, bere eskasean, pantailetan aukera berriak zabaltzen dizkio euskarari, jada aipatu bezala. Legea betearazi beharra dago, eta, gure ustez, lehentasunetako bat behar luke RTVEri exijitzea umeendako Clan kateko edukiak euskaraz bikoizturik eskaintzea. Hirugarrenik, euskaltzale batzuen artean ozenagotzen ari diren kezka eta aldarria ere itxaropentsuak dira: gizartearen zati gero eta handiago bat jabetzen ari da pantailen gure hizkuntzarako duten garrantziaz, eta eragile batzuk horren inguruan elkartzen eta saretzen ari dira. Eta,

azkenik, baina ez hutsalenik, baditugu itzul-tzaile eta bikoizle bikainak eta trebatuak, eta urteetan egindako lanaren eskarmentua ere bai: garai batean, ohitzen hasi ginen fikzioa euskaraz ikusten, eta ume euskaldun gehienek euskaraz ikusten zituzten marrazki bizi-dunak. Azken urteotan, aldaketa itzelak gertatu dira ikus-entzunezkoen alorrean eta edukiak *kontsumitzeko* usadioetan; tamalez, pantailen iraultza etorri zitzaigunerako, eus-

karazko bikoizketan jorraturiko ibilbidea etetea erabakia zuten horretarako eskua zutenek. Galduriko ikusle gaxte horiek berriz geureganatzen saiatu behar genuke orain, eta baliabideak jarri helduok fikzioa euskaraz ikusten ohitu gaitezen. Bidegurutzean gaudela diote adituek: zapuzturiko bidea berreraikitzea izan liteke noranzko zuzenera itzultzeko manera, bidegurutzea ez dakigun gurutze-bide bihur. Goazen!¹

1. Gure eskerrik eta miresmenik beroenak eman nahi dizkiegu iluntasunean argi egiten ari diren guztiei: Pantailak Euskarazkoei, (H)itzartu EITB taldeari, Tinko eta Bieuse elkarteko lagunei, Euskal Encodinsgeko arduradunei, Zer Non Ikusi taldeari eta ikus-entzunezkoak azpidazten boluntario aritutako guztiei. Eta besarkada estu bat *The Simpsons Movie* filmaren euskarazko bertsioa bere kasa bikoizten aritu den Ander Torregerai donostiarriari.

Artikulu hau idatzi eta egun gutxiren buruan, Izaskun Rekalde ekonomialari euskaltzalearen heriotzak saminez bete dizkigu bihotzak. Pantailak Euskaraz mugimenduaren sortzaileetako bat izan da Izaskun, baita haren eledunetako bat ere, hots, *euskara pantailatarra eta pantailetan euskaraz* nahi dugun euskaltzale guztion ahotsa. Agur eta ohore, Izaskun: zure asmoak gugan.

Resumen

En este artículo, dos traductoras de euskera amantes de su lengua exponen su preocupación y reflexiones acerca de que las autoridades encargadas de las políticas lingüísticas en favor del euskera no articulen de forma decidida planes para el doblaje al euskera de series y películas internacionales e impulsar su consumo. Consideran el doblaje al euskera una pieza clave para evitar volver a la etapa de sustitución de la lengua y argumentan que el doblaje de calidad al euskera puede reforzar en gran medida el uso oral del euskera y el consumo de la literatura en dicha lengua. También recuerdan el hecho frecuentemente olvidado de que el doblaje al euskera dispone de una protección legal en la legislación europea, estatal y en la legislación de las administraciones del País Vasco.

Résumé

Dans cet article deux traductrices basques, très attachés à leur langue, exposent leurs inquiétudes et leurs réflexions sur le fait que les autorités en charge des politiques linguistiques en faveur de la langue basque ne mettent pas résolument en place des projets de doublage de séries et de films internationaux en basque, ni de campagne de promotion de ces sous-titres. Il-elle-s considèrent le doublage en basque comme l'élément clé pour éviter de retourner à l'ère du remplacement linguistique, et soutiennent qu'un doublage de qualité en basque peut considérablement renforcer l'utilisation orale du basque et la consommation de la littérature dans cette langue. On l'oublie trop souvent, mais il-elle-s nous rappelle ici que le doublage en basque est protégé par la législation européenne, espagnole et dans les administrations du Pays basque.

Abstract

In this article, two Basque translators and Bascophiles present their concerns and reflections on the puzzling fact that those responsible for language policy in favor of the Basque language have not yet initiated a strong plan to dub international films and television series into Basque and promote the consumption of the dubbed versions. They consider dubbing into Basque to be the key to avoiding a return to the era of language replacement, and argue that the oral use of Basque and the consumption of Basque literature can be greatly strengthened by quality dubbing into Basque. Though we may sometimes forget it, they remind us that dubbing into Basque is protected by law in Europe, in the Spanish state and in the administrations of the Basque Country.